



# EUSKADIKO TAEKWONDO FEDERAZIOA

## EUSKADIKO SUB-21 TXAPELKETA

**Data:** Larunbata, 2018ko maiatzaren 5ean

**Ordua:** 9:30-etatik aurrera (lehiakideak, epaileak eta teknikariak 9:00-etan)

**Lekua:** Bilboko Miribillako Frontoia

**Hartzaileak:** Euskal Herriko klub guztiak

### INSKRIPZIOAK

- 2017ko irailaren 8an Euskadiko Taekwondo Federazioko Ohiz-kanpoko Batzar Orokorrean eta 2017ko urriaren 9an Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko eta Kirol Zuzendaritzan onartu egin zen.
- Kirolarien inskripzioak **lurraldeko federazioen bidez** egingo dira beraien lehendakarien baimenarekin.
- Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako lurraldeak Euskadiko Federazioan eman behar dituzte lehiakideen zerrendak **apirilaren 23a (astelehena) azken eguna izanez.**
- Lurralde bakoitza **ordezkari bat** hautatuko du inkripzioak egiterakoan pisaketan, zozketan eta txapelketa egunean lehiakideak ordezkatzeko.
- Inskripzio epea amaitzean, lehiakideen zerrendak Euskadiko federazioaren **web-orrian** argitaratuko dira kategoria eta pisuen arabera.
- Klub guztiak **lau lehiakide** pisu bakoitzean bakarrik aurkeztu ahal dituzte eta inskripzioak Euskadiko Taekwondo Federazioan egon beharko dute **apirilaren 23an baino lehen.**

### BALDINTZAK

Lehiakideen adina: 1998, 1999, 2000, 2001 eta 2002 urteak (16-tik 20 urtera). Parte hartu dezakete 2018 urtean aurretik aipatutako urteak betetzen duten lehiakideak.

### DOKUMENTAZIOA

Indarreko lizentzia federatiboa  
Gradu-karneta: mutilak gerriko marroia gutxienez eta neskak urdina.  
N.A.N. edo Familia Liburua  
Guraso-baimena

### EPAIKETA ETA ARAUTEGIA

Epaiaketa W.T.F. eta E.T.U.-ren arautegiaren arabera egingo da. Epaiaketa ondo jantzita joan beharko dira: alkandora zuria, pantaloi grisa, zapatila zuria eta jaka itsas-urdina.

Babesgarriak arautegi berria jarraitu behar dute: besaurreko babesgarria, zango-babesgarria, ahoko-babesgarria, barrabil-babesgarria, oinetako-babesgarria eta abar.

### PISAKETA ETA ZOZKETA

Euskadiko Taekwondo Federazioan, **maiatzaren 4an (ostirala) 17:30etatik 19:00etara** egingo da **pisaketa** Miribillako Kirol Etxearen Ospakizun Aretoan. (Bilbo).

Pisaketa egin ondoren **19:00etan** zozketa egingo da.

Pisuak	Gizonak	Emakumeak
Minimosca	- 54 kg.	- 46 kg.
Mosca	54 kg-tik 58 kg-ra	46 kg-tik 49 kg-ra
Gallo	58 kg-tik 63 kg-ra	49 kg-tik 53 kg-ra
Pluma	63 kg-tik 68 kg-ra	53 kg-tik 57 kg-ra
Ligero	68 kg-tik 74 kg-ra	57 kg-tik 62 kg-ra
Superligero	74 kg-tik 80 kg-ra	62 kg-tik 67 kg-ra
Medio	80 kg-tik 87 kg-ra	67 kg-tik 73 kg-ra
Pesado	+ 87 kg.	+ 73 kg.

### OHAR INFORMATIBOA

**W.T.F.-eko Batzorde Exekutiboa eta E.T.F.-eko Batzar Orokorra akordio batera heldu ziren lehiaketetan arbitrajeko nazioarteko araudiaren arabera borrokaldian entrenatzaileen imintzoak, txaloak eta keinu nabarmenak zigortuko dituela, aurrez ikusitako zigorrak lehiakidea eta entrenatzailearen deskalifikaziora irist daitezkeela gogoratuz.**

**Lehen aipatutako ekitaldiek bortizkeriara eta publikoaren zein partehartzaileen desordenetara bultzatzen dute. Hori guztia, kirolean eta kiroleko diziplinako araudiaren aurka eta errege-dekretuaren kontra joateaz gain arauhausleek Taekwondorako ikuskizun tamalgarri eta kaltegarria ematen dute.**

**Bilbon, 2018ko aprilak 4**

**Idazkaritza**

**Euskadiko Taekwondo Federazioa**